



168

ALEA

arabako aldizkaria



GORKA URTARAN

**"GATAZKA ARTIFIZIALAK
IZAN DITUGU
AZKENALDIAN"**



MINTZALAGUNA

IZEN EMATEA: URRIAREN 1ETIK ABENDUAREN 21ERA
WWW.GASTEIZKOMINTZALAGUNA.EUS

Antolatzaileak



Sustatzaileak



Elkartea Eskola Digitalak
 Eskola Digitala da Miran

Babesleak



Laguntzaileak



ALEA 168

2018-10-19 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

A. MTZ. DE LUNA

Gorka Urbaran, Gasteizko pleno aretoan.

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzailea: Edu Zelaieta Anta, Oier Llinas, Zigor Etxebeste eta Arabako Bertsotzale Elkarteak.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** Gasteizko denda historikoei omenaldia.
- 10 **Protagonista:** Gorka Urbaran, Gasteizko alkatea.
- 14 **Iritzia:** Edu Zelaieta Anta eta Oier Llinas.
- 16 **Gutuna:** Araba Euskaraz 2019.
- 17 **Iruditan:** Basque Expedition Race.
- 18 **Gizarte:** Zuiako Udala, Hezkuntza sailarekin haserre.
- 19 **Ekonomia:** Garoña eraisteko planak.
- 20 **Euskara:** Euskararen etorkizunari buruz, gogoeta.
- 22 **Esanak eta datuak.**
- 23 **Laburrak.**
- 24 **Kultura:** Jon Cazenave argazkilaria erakusketa.
- 25 **Ondarea:** Aitzkomendiko inguru berria.
- 26 **Zinea:** 'Black is Beltza', Zigor Etxebeste.
- 27 **Bertsolaritza:** 'Txapelketa atarikoak'.
- 28 **Gure Bazterrak:** Mendibil.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Saltoki zaharren xarma goraipatu dute Gasteizen

Nor ez da inoiz Sosoaga gozotegian, Carrion musika dendan, El Globo liburu dendan edo Pinedo jantzi dendan egon? Gasteiztarrentzat aski ezagunak diren komertzioak dira. Jardunean mendeurrena baino gehiago daramaten saltokiak izateagatik merezitako omenaldia jaso berri dute.

Testua: **Mirian Biteri.**



Belaunaldiz belaunaldi ehun urtetik gora jardunean egotea. Hori da goiko irudian agertzen diren Gasteizko saltoki ezberdinen ordezkariak amankomunean dutena. Urte horietan guztietan, mostradorearen atzean erakutsitako konpromisoa goraiatzeko asmoz, omenaldi beroa jaso zuten guztiek pasa den urriaren 4an egindako Urban Commerce jardunaldiari amaiera emateko antolatutako ekitaldian.

Denera, horrelako 24 establezimendu daude egun: Puente eta Zulueta botikak; Javier Mendoza erloju denda; Mendia optika; Sosoaga, Nalda eta Goya gozotegiak; Carrion musika denda; Circulo Vitoriano; Iriarte poltsa denda; Ferreiro eta Coello aizto dendak; El Globo egunkari denda; La Carlota harategia; Eguia kafe denda; Junguitu ehun denda; Elcid, Orlando eta Moreno zapata dendak; Katxarritos Jauregi tresneria denda; La Union taberna; Pinedo jantzi denda; La Vitoriana eta Ancora okindegiak eta Alocen kapela denda.

Horieetatik zaharrena Puente botika da; 1826. urtean zabaldu zituen ateak San Frantziskoko aldapan, gaur egun jarraitzen duen toki berean. Handik 30 urtera, Mendia optika jarri zuten martxan, eta zortzi urte geroago, Circulo Vitoriano. Apurka San Frantziskoko aldapan, Andre Maria Zuriaren plazan eta Diputazio eta Dato kalean joan ziren gehienak instalatzen, eta ingurune horretan jarraitzen dute. Urte askotarako. ■

Jardunean 100 urtetik gora daramatzaten saltzaileak. GASTEIZKO UDALA

"XIX. mende amaierako egitura mantentzen du egungo botikak"

IÑIGO PUENTE PUENTE BOTIKAKO ARDURADUNA

Gasteizko komertzio zaharrena gidatzen du Iñigo Puentek: San Frantziskoko aldapan dagoen Puente botika. 1826. urtean zabaldu zituen ateak Fernandez de Arellano izenarekin, Logroñotik iritsitako abizen bereko familiaren eskutik. Hiru belaunaldi egin zituen bertan; hain justu, 1911. urtera arte, Lucas Puente bizkaitarrak horren ardura hartu zuenera arte; ondoren, Federico aitona, Gonzalo aita eta Iñigo bera pasa dira.

Gaur egungo jabeak azaldu du Lucas birraitonak Las Carreras herrian botika bat zuela; hangoa itxi eta Gasteizko aldapan, Justo Antonio Olagibel arkitekto ospetsuak egindako eraikinean dagoen botika hartu zuen. Gogoratu du 1780 eta 1790 hamarkadetan, Olagibelek Plaza Berria eta

arkupeekin amaitzerakoan, Udalak lursaila eman ziola botika dagoen tokian.

"Eraikina egin zuen, baina ez zuen erabili, eta Fernandez de Arellano familiak botika jarri zuen orain dela 192 urte".

Puente familiaren eskuetan berrikuntza txikiak egin badira ere, hasierako egitura mantentzen du establezimenduak: "Badakigu lehengo jabeek 1890. urte inguruan berri zutela botika, eta kanpoaldea, bezeroak hartzen ditugun tokia, berdina dago ordutik. Lehen, denda oso txikia izaten zen, eta barrualdea, berriz, oso zabala, botikak bertan egiten zirelako; laborategi handia zuten garai hartako botika guztiak. Sotoan birraitonak botikak egiteko erabiltzen dituen makinak ditugu oraindik ere", azpimarratu du Iñigok.

Egungo establezimenduek ez dute zerikusirik lehengokoekin. "Kanpoaldeak oso handiak dira, bezeroek produktuak ikustea gustuko dutelako. Askotariko produktuak daudenez, toki asko behar da dena ikusgai izateko. Barrualdea, berriz, ahalik eta txikien egiten dira. Gu, dena dela, lehengo egitura hori mantentzearen aldekoak gara, eta berrikuntzarekin bat egiten badugu, saltokiak duen xarma ez galtzen saiatuko gara, bezeroek gustuko dutelako", gaineratu du.

Azaldu du betiko bezeroak ez direnak harrিতa geratzen direla botikara lehen aldiz sartzen direnean. Horrez gain, aspaldi botikatik pasatu gabeko agureei "txikitako oroitzapenak" ekartzen dizkie burura.



MIRIAN BITERI

"Egun, bezeroa dator produktu jakin bat ote dugun galdetzen"

MARTA FERNANDEZ DE JAUREGI KATXARRITOS JAUREGUI

Denetarik topatu dezake bezeroak Puente botikatik oso gertu dagoen Katxarritos Jauregui dendan; gehienak etxerako tresnak baldin badira, aterkiak eta bestekoak ere erosi daitezke 1907. urtean Juan Fernandez de Jaureguik martxan jarritako establezimenduan.

Betoñutik iritsi zen Juan; Gasteizko hiltegiaren lan egiten bazuen ere, San Frantzisko kaleko 7. zenbakian (gaur egun, 5) Uribarri Ganboatik ekarritako buztinezko tresnak saltzen hasi zen, etxabearen. "Garai hartan, herrietako jendea etortzen zen bereziki dendara, txerri-hilketarako tresnak erostera".

Juanen ostean, Felix eta Bene seme-alabek hartu zuten dendaren ardura; eta Felix ezkontzean, Pilar emaztea jarri zen mostradore atzean. Denborarekin buztinezko produktuak saltzeari utzi eta etxerako askotariko tresnak eskaintzen hasi ziren: "Nire ama egon zen garaian, etxea apaintzeko tramankulu asko saltzen ziren; ezkontzerakoan etxea jartzeko ohitura zegoen. Nik neuk amarekin lauzpabost urte eman nituen lanean, eta denboraldi horretan igarri nuen apainketarena behera zetorrela eta aldatzea erabaki nuen", azaldu du Martak, Felix eta Pilarren alabak.

Hogei urtetik gora daramatza berak Katxarritosen lanean; dekorazioarekin lotutakoak kentzeari ekin zion, etxerako bestelako tresnei lekua

egiteko. Teknologia berriei esker, merkatuan dauden produktuen berri du uneoro, eta dendako eskaintza ezagutarazteko ere erabiltzen ditu. Baina, horrez gain, Europatik egiten diren azoketara joateko ohitura ere badu.

Hirugarren iturri bat ere baduela nabarmendu du: bezeroa bera. "Gaur egun, bezeroa dator eta produktu jakin bat ote dugun galdetzen digu. *Chufamix* etxetresna elektronikoa, esaterako,

horrela ekarri genuen; landare-esne ezberdinak egiteko balio du eta ondo saltzen da".

Adibide bat baino ez da hori, "ezinezkoa" egiten zaio eta esatea zenbat produktu dituen salgai. "Dendaz gain, beste hiru biltegi ditugu ingurutik sakabanatuta", esan du.

Ingurugiroarekin lotutako ikasketak ditu, eta hortaz, birziklapenarekin lotutako produktuei ere garrantzia ematen die: "Egun, esaterako, kristalezko botila asko saltzen dira", azaldu du.



M.B.

"Lanean hasi nintzenean heldu ziren taila bidezko lehen jantziak"

DELMÍ UNDIANO CONFECCIONES PINEDO



M.B.

Inork baino hobeto ezagutzen ditu Delmi Undianok jantzigintzaren inguruan gasteiztarrek dituzten gustuak, izan ere, 50 urte baino gehiago eman ditu San Antonio kalean dagoen Confecciones Pinedo denda gidatzen. Eta oraindik ere jarraitzen du; izan ere, negozioa, gaur egun, Josu eta Julen Ruiz de Pinedo semeek kudeatzen badute eta dagoeneko 90 urte beteta baditu ere, egunero jaisten da dendara bezeroak artatzera eta baita berba egitera ere.

"Entrenitzera nator bereziki, urte asko eman ditut dendan, jende asko ezagutzen dut eta oso gustura hitz egiten dut guztiekin", azaldu du Undianok.

Lehenagotik ere zabalik zegoela uste arren, ofizialki 1911. urtean jarri zuen

negozioa martxan Petra Gonzalezek. "Garai hartako jantziek ez dute zerikusirik gaur egungoekin; orduan oihalak erakusten ziren eta aukeratu ostean neurrira egiten zen guztia", aipatu du. Urteekin, Petraren seme Jesus Ruiz de Pinedok hartu zuen negozioaren ardura; harekin ezkondu eta gero sartu zen Undiano Confecciones Pinedon: "Lanean hasi nintzenean heldu zen taila bidezko lehen arropa; Josuk hiru urte baino ez zituen, eta orain 58 ditu. Atera kontuak azken 50 urteotan zelan aldatu den", gaineratu du.

Gogoan du, hasiera batean, mertzeria bat izan zela eta denborarekin eguneroko jantziak saltzen hasi zirela, baita jaunartzeetarako eta

ezkontzetarakoak ere. Saltzeaz gain, alokatu ere egiten zituzten. Baina, semek negozioa hartu zutenean azken horiek kendu eta egina datorren jantzigintza eta euskal jantziekin geratu ziren. Azken horiei dagokionez, gogoratu du hasieran tantodun zein loretxodun jantziak bakarrik zeudela: "Betikoak ziren, amonenak. Denborarekin eskaintza zabaltzen joan zen eta gaur egun, denetarik dago. Izugarri aldatu da".

Euskal jantziak gaur egun oso ondo saltzen direla ere aipatu du, eta gehienetan, "modernotxoagoak" direnak eskatzen direla gaineratu du, bai umeen jantzietan eta baita emakumezkoetan eta gizonezkoetan ere.

Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa 2018

Aurten, lanak aurkezteko bi era dituzu: idazlan edo bideo bidez; zuk aukeratu!

Idazlan bidez, oinarriak

Ikusi eta lanak bidaltzeko, sartu:

Berria.eus/mendietabidaiakronika2018

Bideo bidez, oinarriak:

- Aurkezten diren bideoak originalak eta argitaragabeak izan behar dute.
- Bideo bakotzak gutxienez **5** minutu eta gehienez **20** minutu izan behariko du.
- Bideoek euskarazkoak izan behariko dute. Euskaraz ez den edukirik balego, euskarazko azpidatziak izan behariko ditu.
- Bideoak online sistema bidez (torius edo weTransfer.com) bidali behar dira bideoak@berria.eus helbidera, **azaroaren 11 baino lehen**. Gai: Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketa.
- Bideoarekin batera, hauek ere bidali behariko dizkizugu:
 - Bideoaren fotograma bat .jpeg formatuan
 - Irriburua
 - Sinopsia edo laburpena
 - Egileen izen-abizenak, telefonoa eta helbide elektronikoa.
 - Baloratuko da:
 - Kalitate artistikoa
 - Gidoiaren originaltasuna
 - Edizio laniketa
- Jasotako bideoak **BERRIAren** Youtubeko kanalean jarriko dira, eta **BERRIAren** webgunean publikatuko. Bideoa egiri duenak izango du bidaltzeko lanaren edukia erdua.
- **BERRIAk** eskumen izango du lanak lehiaketatik kanpo uzteko; lehiaketatik kanpo utzi ahal izango ditu mezu iraingeriak, gisa eskubideak urratzen dituztenak edo sexistak darabiltzatzen bideoak.
- Datu Pertsonalak Babesteko Arategia beteaz, parte hartzaileei jakinarazi nahi zaitzugu bere datu pertsonalak **EUSKAL EDITOREA SL** enpresaren tratamendu sistemetan jasoko direla, horie baita **Tratamenduen Erantzulea**. Hala, parte hartutako lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, soilik.

SARIA-Idazlana:

Irabazlearentzat, Mendiak eta Herriak mendi gidari elkartearen oparia, lagun batentzat.

ZERMATT INGURUKO GOI MENDI KO ZEHARKALDIA

Breilhorn (4.165 m) - Castor (4.226 m) - Parrotzspitze (4.436 m) - Zumsteinspitze (4.563 m)

EGITARAUA:


1. Alpeetarako bidala. Norbere autoan. Gaba Saas Grund herrian. Suitza. Mantenu erdia.
2. Theodul aterpea (3.200 m). Saas Grund - Tasch, gure autoan. Tasch - Zermatt, taxi. Telefonoa Zermatt - Trockener Stegg (2.700 m). Trockener / Rifugio Theodul (3.200 m), Theodul glaziarrean barna, 1.30 ordu. Mantenu erdia.
3. Breilhorn (4.165 m eta 4.360 m). Theodul / Breilhorn lepoa, 1.30 ordu. Breilhorn lepoa / Breilhorn (4.165 m eta 4.160 m), bi gailurren arteko zeharkaldia eginez. Guida Val d'Ayas aterpea (3.200 m). Mantenu erdia.
4. Castor (4.226 m). Val d'Ayas / Castor (4.226 m), 4 ordu. Castor gailura / Quintino Sella aterpea (3.400 m). Bi ordu. Mantenu erdia.
5. Parrotzspitze (4.436 m). Quintino Sella aterpea / Liskioch lepoa / Ludwigshöhe (4.341 m), Parrotzspitze (4.436 m) gailurak. Punta Griffetti - 4.536 metroa igoko gara, non Margerita aterpea dagoen, Alpeetako aterperik altuena - Mantenu erdia.
6. Zumsteinspitze (4.563 m). Margerita / Zumsteinspitze (4.563 m), ordu bat. Greengletscher glaziarretik behera egingo dugu. Mte Rosa aterperaino (2.800 m). Mantenu erdia.
7. Zermatt eta Saas Grunderako itzulera. Mte Rosa aterpea / Greengletscher glaziarra / Rottenboden tren geltokirako igotzea. Trenz Zermattera, Zermatt - Tasch - Saas Grund
8. Etxerako itzulera

SARIA-Bideoa:

Irabazlearentzat, ATXASPI HOTEL EAN **Relax** asteburu-pasa, bi lagunentzat.

Parte hartzaile guztien artean, APALATEGI KIROLAK dendan gastatzeko 100 euroko 3 bonu.

BABESLEAK:



ATXASPI HOTELA



APALATEGI
KIROLAK

"Gezur eta irain asko jasan behar izan ditut azken asteetan"

GORKA URTARAN GASTEIZKO ALKATEA

Azkenaldian, haren kontra egiteko "gatazka artifizialak" antolatu dituztela salatu du Urtaranek. Ezker abertzaleari egotzi dizkio, besteak beste, Okupatu Gasteiz jaialdia eta Olarizuko gurutzearen inguruko afera "erabiltzea" alkatearen aurka egiteko.

Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkiak: **Aritz Martinez de Luna**.

Maiatzeko hauteskundeen zamak baldintzatuko ditu legealdiko azken hilabeteak, baina alderdien arteko tentsioa "aspaldikoa" dela aitortu du Gorka Urtaran (Gasteiz, 1973) alkateak. Aginte-makila eskuratzeko beharrezko babesak izan zuen alderdiekin –EH Bildu, Podemos eta Irabazi– harremana "hoztu" egin dela esan du, eta, "estrategia politikoagatik" hainbat gai atzeratu izana leporatu die.

Legealdia amaitzeko zortzi hilabeteren faltan, zer geratzen zaizu egiteko?

Egin gabeko proiekturik ez nuke esango geratu denik, baina hainbat proiektuk erritmo biziagoa eraman zezaketela bai. Akordioak lortuz eta beste jarrera batekin posible izango zen hauetako asko arintzea; Gasteiz Antzokiaz, tranbiaren luzapenez edo beste inbertsio batzuetaz ari naiz.

Orain hiru urte baino ahulagoa ala sendoagoa daude alderdien arteko harremanak?

PPrekin harremanak nahiko txarrak izan dira legealdi osoan zehar, nahiz eta akordio jakin batzuk lortu; hasieratik ez zuten ulertu eta barneratu Gasteizen gertatutakoa, eta, beraz, oso akordio gutxi lortu ditugu, zoritxarrez. Izan ere,

uste dut, ideologiak ideologia, oso inportanteak direla akordioak edozein administraziotan. EH Bildu, Podemos eta Irabazirekin harremanak hoztu egin dira, eta ezin dut ulertu; ez da oraingo kontua, 2016tik dator. Ezin dut ulertu nola EH Bildu, adibidez, legealdia hasi eta 12 hilabetera urrunduko egin zen EAJtik eta bakarrik utzi gintuen erronka honetan; aldaketaren guri horretatik jaitsi zen urtebetera. Orditik, bi urte pasa dira oso akordio gutxi erekin, baina jarrera positiboa erakutsi dutenean lortu ditugu akordioak; azken hiru asteetan akordio bat lortu dugu PPrekin ordenantza fiskalak onartzeko eta EH Bildurekin kirol azpiegiturak hobetzeko.

Salbuespena dira?

Espero dezagun ezetz. Ni beti egon naiz prest akordiorako, haiek badakite. Azken bi urteetan akordioak egon ez badira ez da izan zailtasunak egon direlako, estrategia politiko batengatik baizik. EH Bilduri eta PPri ez zaie interesatzen EAJ indartsu bat Gasteizen.

Jeltzaleek Legebiltzarrean egin duten apustua, erabakitze eskubidearen aldekoa, kolokan jarri dezake EAJ eta PSEren arteko akordioa?

Alderdi sozialistarekin harremana oso ona da Udalean, uste dut estutu egin dela azken bi urte



eta erdi honetan, eta ez dut uste kolokan jarriko duenik harremana erabaki horrek. Legealdi hasieran gauza bera gertatu zitzaigun; alderdi sozialista ez zen gobernuan sartu Pedro Sanchezek jasotako presioengatik, eta harremanak hemen ez ziren kaltetu. Desberdintasun asko egon daitezke bi alderdien artean, hau da desberdintzen gaituenetako bat, baina adostutako desadostasun bat da, eta ez dut uste arriskuan dagoenik akordioak.

Markel Olano Gipuzkoako ahalduen nagusiak estatutu berrirako oinarriaren EAJk EH Bildurekin adostutakoa izan behar dela dio, erabakitzeke eskubidearen alde. Lehendakariak, berriz, porrota dela soilik abertzaleen babesa duen estatutu bat ateratzea.

Lehenengo urratsa hori izan behar da, EAJ eta EH Bilduren artekoa, baina etorkizunerako bermez jokatu nahi baldin badugu eta akordio hori garatu nahi baldin badugu, zabalagoa izan behar da, argi eta garbi. Alderdikide bezala oso gustora nago akordio honetan, erabakitzeke eskubidearen aldekoa naiz, jelkidea naizelako, eta autodeterminazioaren aldekoa naiz. Baina nik, alkate bezala, ikusita zer nolako egoera soziopolitikoak dugun Gasteizen edo EAE mailan, uste dut beharrezkoa dela akordio hori zabalagoa izatea, eta malgutasunez jokatzeko denok. Alde horretatik, beraz, bat nator Lehendakariaren hitzekin.

Gasteizera bueltatuta. Urriaren 6an Okupatu Gasteiz jaia ospatu zuten ehunka lagunek.

Harrigarria iruditu zait. Ezin dut ulertu zergatik gertatu den gertatutakoa. Ereku publikoa eskatu zuten jai hori egiteko; kale eta plaza asko eskatzen zituzten, eta kontuan izan behar dugu urriaren 6an ez zegoela jai hori bakarrik: Alde Zaharreko azoka, Euskal Herriko dantzariak... eta baimena eman genien toki jakin batean egiteko. Baina esango nuke hau dena EH Bilduk prestatu zuela nirekin konfrontatzeko; bestela ez dago ulertzerik sortu dena. Ez dugu ezer debekatu, guk ereku publikoa konpartitu dugu, justu haiek eskatzen zutena: konpartitu. Beste alde batetik, jakin nahi nuke: non dago berdintasuna Okupatu Gasteiz ekitaldi horretan? Zergatik batzuek okupatu dezakete etxebizitza bat ezer ordaindu gabe, gainontzekook ordaintzen ditugun bitartean gure zergak, gure hipotekak...

Arazo bati erantzuna da beharbada, aukera faltari...

Badaude aukerak. Badaude gazteentzako alokairuak gazteentzat, Ensanche 21 erakundeak deialdiak egiten ditu tarteka, eta ez dira



Gorka Urteaga, Gasteizko udaletxearen duen bulegoan.

"OKUPATU GASTEIZ-EKIN BEZALA, GATAZKA ARTIFIZIALA IRUDITZEN ZAIT OLARIZUKOA, BEHARTUTAKOIA"

"EZ NAGO AUTOGESTIOAREN KONTRA, BAINA ARAU BATZUK DENOK BETE BEHAR DITUGU"

"EZIN NAITEKE JARRI ETA-REN BIKTIMEN KONTRA M3KO BIKTIMAK MEMORIALEAN EZ DAUDELAKO"

animatzen. Esango nuke "berdintasunaren" kontzeptua ez dutela ondo ikasita, ez EH Bilduk, ezta Okupatu Gasteizko kideek ere. Izugarrikoak entzun behar izan ditut azken aste hauetan; gezur eta irain asko jasan behar izan ditut. Zein da euren askatasunaren kontzeptua? Haien proiektuaren alde ez banago, irainak jaso behar ditut? Nahiko adierazgarriak izan dira haien jarrera eta gezurrak. Ez nago autogestioaren kontra, baina arau batzuk bete behar ditugu denok, eta badaude gutxi batzuk nahi dutena egin dezaketena. Ez dut ulertzen berdintasunaren kontzeptu hori, eta ez naiz eredu horren aldekoa.

Ez dizkiozu ikusten, beraz, alde aberasgarriak Errekaleor proiektuari?

Bat bera ere ez. Hara joan, etxea okupatu, sortzen den zaborra jaso dezatela besteek ezer ordaindu gabe... Zeren truke? Jarrera berekoa da hori.

Memoria Gara ekinaldia aurkeztu berri dute, "memoria inklusiboaren" ikur moduan.

Oso interesgarria iruditzen zait. Legealdi honetan zehar ahalegin handi bat egin dugu Martxoaren 3ko biktimak biktima bezala aitortzeko, hainbat ekimen egin ditugu; Gasteizko Udalean, lehenengo aldiz, aitortza egin diegu. Europan ere izan gara M3ko biktimen egoera zabaltzeko eta justizia egiteko.

Biktimen Memoria dago, beste alde batetik. Zergatik eman babesa biktima batzuk alboratzen dituen erakunde bati?

Ezin naiteke biktima batzuen kontra jarri beste biktima jakin batzuk ez daudelako; ezin naiteke jarri ETako biktimen kontra, Martxoaren 3ko biktimak ez daudelako. Nik eskatu dezaket, eta ez baldin badira han egongo beste toki batean egongo dira, biktima horiek ere gure aitortza merezi dutelako. Baldintza moduan jartzea biktima batzuk egotea besteei babesa emateko? Niri ez eskatu hori, ez dudalako egingo. ETako biktimak ere hor daude, eta GALEko biktima batzuk, eta horiek ere nire babesa dute, M3ko biktimek merezi duten moduan. Nire aldetik, biktima guztiek tratu berdina behar dute, eta, beraz, Memoria Gara proiektu hori oso interesgarria iruditzen zait. Elizari dagokio erabakia, bestela eginda egongo zelako; bere garaian egin genituen gestioak gotzainarekin, eta orain ere beharrezkoa baldin bada prest egongo nintzateke, zalantzarik gabe.

Olarizuko gurutzeak ere eman du zeresana.

Nigatik amaitu da. Gurutzea jarri zuen kideetako bat atera behar izan zen esatera herri ekimen bat

izan zela eta zerikusirik ez duela frankismoarekin, nahiz eta garai hartako gobernadorea saiatu zen bere egiten ekimen hori. Faxismoaren sinbolo argi bat izan behar da Memoria Historikoaren legea baliatu eta botatzeko, baina kasu honetan ez da. Eta hor dago beste konfrontazio bat, batez ere ezker abertzalearekin, ulertzen ez dudana; askotan esaten diet haiei, gure kontra joateko argudio bila dabiltzala, ez dut ulertzen. Okupatu Gasteizekin bezala, gatazka artifiziaza iruditzen zait, behartutakoa.

2019an dator Lauko Finala. Zer aurreikuspen dituzue?

Nazioarte mailan hiri bezala izango dugun proiektzioa oso handia izango da, eta aprobetxatu behar dugu. Batetik, kirola sustatzeko gasteiztarren artean, eta, bestetik, aukera paregabea dugu Europa osoari erakusteko gauza garela halako ekitaldiak antolatzeko.

Eskalatzaileek agerraldia egin dute aste honetan, Udalak baztertuta dituela salatzen.

Baina norena da errua? Gasteizen bi rokodromo izatetik hiru izatera pasa gara, eta, beraz, kirol teknikariek baldintza-agiri bat prestatu dute kontratazioa egiteko; horien erabilera baloratu dute eta horren arabera ordu kopurua zehaztu dute, eta gehiago jarri dira, proportzionalki handitu ez den arren. Beraz, zeinek jartzen ditu baldintzak pliego batean? Administrazioak, ez enpresak. Pentsa, eskalatzaileak beharrean FCC datorrela baldintzak jartzera... Eskalatzaileen kooperatibak pulstu bat bota dio administrazioari, jakinda administrazioak ezin duela hori onartu; beraz, esatea debekatu dugula inor aurkeztu ez denean jarritako baldintzetan, gehiegixto esatea iruditzen zait. Ahalik eta azkarren martxan jartzeko, halere, lizitazio berri bat prestatzen ari gara.

Laster da Euskaraldia. Parte hartuko duzu?

Bai, noski, Ahobizi moduan eman dut izena. Ekimen erakargarria eta polita iruditzen zait. Udaletxean ere egin beharko genuke saiakera euskaraz hitz egiteko; proposamen bat egin beharko dugu zinegotzi guztiekin, behintzat osoko bilkura bat osorik euskaraz egiteko.

Noiz izango da euskara zeharlerroa Udalak antolatu edo diruz babestutako ekitaldi guztietan?

Ni azkarrago joango nintzateke baina kontuan izan behar dugu zer nolako eskaera dagoen kanpoan eta errealtate soziolinguistikoa zein den. Ari gara urratsak egiten, eta euskararen presentzia Udalak antolatzen dituen ekitaldietan gero eta handiagoa dela uste dut. Egia da, halere, oraindik gehiago egin behar dela. ■■■■

Burbuila(k)



EDU ZELAIETA ANTA
IDAZLEA ETA IRAKASLEA

Dendarabako negozio baten jabeak esan didanaren arabera, 1988ko urrian zabaldu zituen ateak Gasteiz erdialdeko merkatal gunek, hain zuzen ere, gutako askok ezagutu genuen halako lehenbizikoak. Orduko nobedade hartan, nolabaiteko kutsu futurista zuen pieza berezi bat zegoen merkatal zentroaren erdian: Radio Vitoriak jarritako kabina bat. *La burbuja* izena zuen batez ere kristalez egindako espazio hark, eta handik bertatik emititzen zuen zenbait ordu egunean irrati publikoak.

Kontu jakina da lehengo toki berean jarraitzen duela Dendarabako burbuilak; aspalditxotik, baina, hutsik dago, eta irratiko uhinak ez dira bertatik hedatzen. Egia esan, ez dakit zer izango zuen buruan hura diseinatu zuenak. Nolanahi ere, eta horregatik nioen arestian kutsu futuristarena, nago 80ko hamarraldiaren amaieran egindako apustuak XXI. mendera begiratu nahi zuela, erosteko eta komunikatzeko molde berriak zetzela iradokitzeko asmoz-edo.

Ondotxo dakigunez, lehertu egin zen burbuila hura; ez zuen, gainera, gehiegi iraun. Eta burbuila haren moduan, beste batzuen eztandak ere ezagutu izan ditugu XXI. mendearen hasieran, bai eta segur aski beste batzuenak ezagutuko ere hurrengo urte-hamarkadetan. Tartean egon daitezke, konparazio baterako, hiria berritzeko edota dinamizatzeko proiektu ezinbesteko zenbait. Denborak esango du.

2018ko urriko orainera itzulita, Dendaraban sartzan naizenetan, *Back to the future* film amerikarra datorkit akordura. Izan ere, etorkizuna izan behar omen zuen hura iraganean gelditu da. Bizitzaren ironiak tarteko, gero eta iragan urrunagoan. ■■■

**BURBUILA HAREN
MODUAN, BESTE
BATZUEN EZTANDAK
EZAGUTU IZAN DITUGU
XXI. MENDEAN**

Batuan ere euskaraz



OIER LLINAS VILLASANTE

KAZETARIA

Jose Luis Lizundia euskaltzain emerituak dio inork ez duela gaur egun zalantzan jartzen euskara batua beharrezkoa dela. Arrazoi pixka bat badauka, irratian, telebistan, liburuetan, zineman eta abarretan guztiz errotuta baitago. Hori bai, herrietako kaleetan barrena ibiltzerakoan argi dago ahozkoak batuari ihes egin diola. Bestela, Gernika edo Azpeitiatik bueltatxo bat eman eta zenbatu zenbatetan entzuten den euskara batua. Arabako herri gehienetan aldiz, gurasoen errietak, bikoteen maitasun hitzak edo tabernariari eskatutakoa euskara batu jator-jatorrean izango dira. Euskaldunak dira hauek ere, noski, baina beste herrialdeetako biztanleei ahaztu ez ote zaien pentsatzen dut sarritan.

Aurrekoan trenean Kataluniako lagun batekin nengoan eta ondoan Oñatiko bikote bat eseri zen. Haiekin euskararen inguruan hasi ginen berriketan eta, momentu batean, gizonak zera esan zuen niri begira: "Guk euskaraz egiten dugu eta berak batueraz". Hara hor, nire bizi osoa euskaraz hitz egiten nuela pentsatzen, eta erratuta omen nengoan. Une baten isilik egon nintzen, zer esan jakin barik, eta segituan aitzakiekin hasi nintzen: txikitatik horrela ikasitakoa, ingurukoek erabiltzen zutena... Beharbada nire bizitza pribatuaren inguruko azalpenak besterik ez ziren, baina nire burua zuritzera behartuta nengoela sentitu nuen. Tamalez, horrelakoak behin baino gehiagotan bizi izan ditut.

Bost hamarkada pasatu dira Arantzazuko biltzarretik, eta, oraindik ere, euskaldun batzuk bigarren mailakoa bazina bezala begiratzen zaituzte euskara batua erabiltzerakoan. Ez dut uste azken orduko berria denik baina, askok euskara batua da hitz egin dezaketen "euskalki" bakarra. Aurrera egiteko, bestearen hizkerari so egin beharrean, elkarrekin Euskaraz, letra larriz, hitz egiten dugula barnertatzeko garaia da. Alegia, ahozko euskara ezberdin guztien edertasunez jabetzeko uea. ■■■

**NIRE BIZI OSOA
EUSKARAZ EGITEN
NUELA PENTSATZEN,
ETA ERRATUTA OMEN
NENGOEN**

Araba Euskaraz 2019

LURDES ERRASTI, DENON ESKOLA ARABAKO GURASO ELKARTEEN FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

Joan den astean, Gasteizen ospatuko den Araba Euskaraz 2019 aurkeztu zuten, zeinaren irabaziak Armentia Ikastolan hobekuntzak egiteko erabiliko diren. Horraino dena normala, ezberdintasunetik abiatuta gure ikuspuntu ezberdinak uztartu eta elkarbizitzarako tarterik badago euskalduna eta askotarikoa izatea nahi dugun gure hiriko gizartean.

Baina jaiaren aurkezpeneko bideoan ikasle baten kontaketa (gogora dezagun 16 urte baino gazteagoa dela bera) eskola publikoa euskara mespretxatzen duen tokia bezala aurkezten duenean zerbaitek huts egin du, eta hezkuntza eredu horren arazoak agerian gelditzen dira. Integrazio arazoa, diskriminazio arazoa eta bizi dugun errealitate sozialaren ezagutza falta eta heziketa arazoa.

Heziketa arazoa, ikastetxe horretan baloreen heziketa eta ezberdinarekiko errespetua falta direla ematen duelako.

Errealitate sozialaren ezagutza faltaren arazoa, ikastoletan euskara ikastea erraz samarra delako gure hizkuntza ikastearekiko abegi ona erakusten duen masa soziala baita. Bixia da, halere, adituen arabera, irakaskuntza publikoaren eta itunpekoaren arteko datuak alderatzerakoan ez baita hainbesteko ezberdintasunik ikusten. Eta, horrez gain, eskola publikoan aurkitzen ditugun ikasleen jatorrizko hizkuntzak oso homogeneoak ez direla kontuan hartu behar dugu. Zabalana



Araba Euskaraz 2019ko aurkezpena. ARABA EUSKARAZ

eskolan adibidez, Armentia ikastolatik hurbil, jatorrizko 22 hizkuntza aurkitu daitezke, eta halere, euskaraz komunikatzen dira ikastolakoen parekoak diren maila akademiko oso onargarriekin; eta ez ahaztu,

"BALOREEN HEZIKETA ETA EZBERDINAREKIKO ERRESPETUA FALTA DIRELA EMATEN DU"

"EUSKARA MESPRETXATZEN DUEN TOKIA BEZALA AURKEZTEN DA ESKOLA PUBLIKOA"

diru publikoarekin soilik finantzaturik.

Diskriminazio arazoa, Gasteizko populazio etorkinaren %2 bakarrik eskolatu delako gure hiriko ikastoletan. Integrazio arazoa, bestea, ezberdina, ezagutzen ez duzunean soilik mespretxatu dezakezulako.

Eta beste arazo bat gehituko nuke, larriena nire ustez,

jaiaren antolatzaile taldearena hain zuzen ere, hain une aztoratuan, Eusko Legebiltzarrean eskola segregazioaren aurkako herri ekimen legegilea baztertu egin denean, era honetako bideo bat aurkeztuz.

Eskola publikoko ama naiz, irakaskuntza dohainekoa eta kalitatekoa izan behar dela uste dudalako, gure kulturaren sinistu eta eskola publikoan indartu eta sendotzen dela dakidalako, gure gizartea anitza delako eta gure umeez gizartean bizitzen eskolan ikasten dutelako, eta gure garaikoarekin zerikusirik ez duen mundu aldagarrian bizitzeko prestatzen direlako. Eta hori guztia, batzuen gogokoa ez bada ere, eskola publikoak bakarrik bermatzen duelako.

BIDALI ZURE GUTUNA:
erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali izen-abizenak, herria, telefonoa eta NAN zenbakia. ALEAk eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.



Euskaldunak garaile iraupen luzeko abenturan

David Tarresek, Gaizka Agirrek, Imanol Garaizabalek eta Uxue Frailek osaturiko Euskal Raid-Aralar Kirolak taldeak irabazi du asteburuan Añanan ospatu den *Basque Expedition Race* iraupen luzeko abenturazko norgehiagoka; 53 ordu eta 9 minutu inbertitu dituzte gelditu gabeko hiru eguneko proba egiteko. Urriaren 12tik 15era arte orientazio probak, korrika, kayaka, trekkinga, mendi bizikleta eta rappela uztartzen dituen lasterketan parte hartu dute Europa osoko 40 taldek. Añanako paraje desberdinak zeharkatu dituzte, besteak beste, Valderejoko parke naturala edo Sobrongo ferrata-bidea. **Argazkia: Andrea Nogova**



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Pauldarren eraikinean Haur eta Lehen Hezkuntza kokatzeko egitasmoa geldituta dagoela salatu du Zuiako alkateak. ALEA

Udala gogaitu du Hezkuntza sailak

Pauldarren egitasmoak aurrera egiten ez badu, mobilizazioetara joko dutela adierazi du Zuiako Udalak. Hezkuntza sailak dio ikastetxea egokitzeko obrak lizitzatzeko prozesua abian dagoela.

E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE ZUIA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak konpromisoak ez dituela bete salatu du Zuiako Udalak, eta Pauldarren proiektua geldituta duela. Gainera, Hezkuntza saileko sailburuorde Olatz Garamendik eta bere lankide hurbilenek "engainatu" dutela adierazi du herriko alkate Unai Gutierrez Urkizak: "Behin eta berriro saiatu gara telefonoz harremanetan jartzten, baina ez gaituzte aintzat hartzen". Alkateak iragarri du

Udalak berehalako erantzuna jasotzen ez badu mobilizazioetara joko duela, eta hainbat jarduerara jarriko dituela martxan Hezkuntza sailari akordioak betetzea eskatzeko.

Aurten, Hezkuntza sailak proiektua egina izan beharko zukeen, eta lanen esleipen prozesua hasi. "Baina egin duen gauza bakarra izan da Zuiako herritarrak engainatu", esan du alkateak.

Hezkuntza sailak, bere aldetik, obrak lizitzatzeko prozesua abian

dagoela erantzun du, eta proiektua bide arrunta jarraitzen ari dela.

Eraikina erosi zuen Udalak

Orain dela bi urte Pauldarren eraikin zaharra erosi zuen Udalak, "ahalegin ekonomiko handiarekin eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzari esker". Helburua zen bertara eramatea udalerriko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zikloak, eta egun bertan eskaintzen den Bigarren Hezkuntzako zikloarekin, heziketa-eskaintza publiko osoa leku berean batzea.

Operazioa aurrera eramanean zen Hezkuntza sailarekin negoziatu ondoren, eta 2016ko udaberrian Lakuako gobernuak eraikina egokitzeko lanak finantzatzeko hitza eman zuen. "Harrezkero, hainbat alditan irten da Zuiako udalbatza sailburuordearen bulegotik promesak, epe zehatzak eta hitz onekin. Guzti-guztiak sistematikoki hautsiak".

E.UGARTE LZ DE ARKAUTE GAUBEA

Itxita badago ere, Garoñako zentral nuklearra polemika iturri da. Izan ere, bertako biltegi nuklearraren inguruan tantaka zabaltzen ari da informazioa, eta oraindik ez da argitu noiz hasiko diren zentral nuklearra eraisten eta hondakin arriskutsuak gordetzeko biltegia eraikitzen.

Operazio horren kostuaren inguruko zifra bat eman du Espainiako Gobernuko ordezkariordeak Burgosen. Pedro de La Fuenteren arabera, Enresak 480 milioi euro inbertituko ditu Garoña eraisteko, eta hamabost urteko epea behar izango dute lanak egiteko; litekeena da erreaktorearen piszina dauden erradioaktibitate altuko hondakinak ateratzeko eta biltegian sartzeko denbora gehiago behar izatea. De la Fuentek azaldu duenez, 2020. urtera arte ez da hasiko eraispena.

Izan ere, hainbat tramite egin behar ditu Enresak aldi baterako biltegi nuklearra eraikitzen hasi baino lehen. Biltegiak hamar edukiontzi edukiko lituzke Garoñako hondakin erradioaktibo arriskutsuenak gordetzeko. Edukiontziak aire zabalean egongo dira, zentralaren kokalekuan baina zentralaren funtzionamendutik erabat bananduta. Hormigoi armatuko lurrikaren kontrako bi plaka eraikiko dira, 40x20 metrokoak, eta horien gainean jarriko dira edukiontziak; bi harlauza hauen inguruan 5.200 metro koadroko hormigoizko zolua jarriko da, eta eraikuntza itxeko 3,5 metroko altuerako hormak altxatuko dituzte.

Printzipioz, Garoñako biltegian gordeko diren hondakinak Gaztela-Mantxako Villar de Cañas herrian eraikitzeko asmoa dagoen hilerri nuklearrera eramatea aurreikusita zegoen, estatu osoko



Garoñako zentral nuklearraren tokian biltegi nuklearra eraikiko dute. PHOT. OK

480 milioi euro, Garoña eraisteko

Burgosko eta Arabako hainbat udalek plan bat aurkeztuko dute aurki Espainiako Kongresuan inguruneke etorkizun ekonomikoa eta soziala bermatzeko; 2020ra arte ez dira hasiko eraispin lanak.

hondakinak bertan zentralizatzeko, baina proiektua geldituta dago, eta ondorioz ez dute argitu noiz arte izango den Garoña biltegi nuklearra.

Zergak eta inbertsioa

Horregatik, hain zuzen, Gaztela eta Leongo PPko gobernuak bertan eraikiko den biltegi nuklearraren gaineko zerga berri bat ezarriko duela iragarri du, eta aste honetan bertan onartu dute erkidego horretako Gorteetan zerga arautzeko lege proiektua. Talde politiko guztiek –PSOEek eta Csk- kontra bozkatu dute, PPK izan ezik, eta auzitan jarri dute neurri

fiskalaren legezketasuna. Gaztela eta Leongo gobernuak, aldiz, zerga berriaren bitartez urtean hamar milioi euro bilduko direla nabarmendu du.

Inbertsioak dira, hain zuzen, Garoñako zentralaren inguruan bizi diren Arabako eta Burgosko herritarrek eskatzen dutena, itxieraren ostean ingurunearen etorkizun ekonomikoa eta soziala bermatzeko. Hamalau udalerritako alkateak eta zonaldeko elkarteak garapenerako plan bat prestatzen ari dira, eta aurki aurkeztuko dute Espainiako Kongresuan. Horien artean Lantarongo eta Gaubeako udalak daude.



Orain arte, Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen proiektuaren hiru mintegi egin dituzte Gasteizen. EUSKO IKASKUNTZA

Euskaldungoaren mapa marrazten

Eusko Ikaskuntzaren kongresuaren bosgarren saioa egin dute Gasteizen, eta bertan euskararen komunitatearen analisia izan da protagonista: kapitalak eta aktibo zehatzak identifikatu dituzte.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Euskarak dituen baliabideak eza-gutu eta euskal komunitatearen etorkizuna irudikatu. Besteak beste, erronka horiei ekin die Eusko Ikaskuntzak 100 urte bete dituen honetan. Sei saiotan banatu dute *Geroa Elkar-Ekin* lelopean egiten ari diren kongresua, eta bosgarren saioa ostiral honetan abiatu dute Gasteizen. Azaroaren 23an eman-go diote behin betiko amaiera kongresuari, Oñatin.

Gasteizko saioa Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5) proiektuan egindako lana gizarteratzeko baliatu dute. Euskalgintzan azken urteetan agertu diren erronkek erantzun eta irtenbide berriak behar dituztela uste dute proiektuko sustatzaileek. Egitasmoaren xede nagusia "datozen hamarkadetarako euskalgintzaren aro berria konfiguratzeko laguntzea da", Eusko Ikaskuntzak kongre-

surako landu duen *Liburu berdean* zehaztu dutenaren arabera.

Komunitatearen indarra

Euskara izan da prozesuaren ardatza, baina, batez ere, euskal komunitatea izan dute aztergai. Izan ere, ez dute analisia zentratu euskararen egoeran, euskaraz garatu nahi duen komunitateak prozesu horretan aurrera egiteko dituen kapitaletan eta aktiboetan zein etorkizuneko aukeretan baizik. Horren zergatia azaldu du proiektuan parte hartu duen Iñaki Martínez de Luna soziolinguistak: "Euskararen egoeraren gaineko datuak eta ikerketak aspalditik egiten ari dira, eta horretan sakontzen jarraitu beharra dago, noski. Baina orain arte ohikoa ez zen planteamenduari heldu zaio. Komunitatean jarri dugu arreta".

Euskaraz garatu nahi duen komunitateak hartu du, beraz, protagonismoa. "Ez soilik euskaldunak", Martínez de Lunak nabar-

menu duenez. Zentzu honetan, Arabaren kasua oso adierazgarria izan dela dio. "Euskararen aldeko mugimenduaren parte handi bat duela 40 urte erdaldunen eskutik etorri zen. Ekarpene oso inportantea egin zuten, eta ekarpen hori egiten jarraitu dezakete gaur egun ere". Komunitate horrek dituen baliabideak edo *kapitalak* aztertzeari ekin diote. Guztira, sei arlo bereizi dituzte: giza kapitala, kapital soziala, azpiegitura kapitala, kapital ekonomikoa, politikoa eta kulturala.

Aktibo zehatzak

Kapital hauetan guztietan dauden aktiboak identifikatu dituzte ondoren. Horietako batzuk abstraktuagoak dira, eta, besteak, zehatzagoak. Adibidez, kapital sozialaren aktiboetako bat da "euskalgintza sektore berritzailea dela eta gizartearen onarpena duela". Kapital politikoa alorrean, berriz, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko protokoloaren garrantzia edo "etorkizunean erakundeetan aginduko dutenak euskaldunak" izango direla azpimarratu dute jardunadiotan.

Proiektua lantzeko hainbat mintegi egin dituzte Gasteizen. Iazko ekainean izan zen lehena. Proiektua azaldu zuten bertan, eta parte-hartzaileen ekarpenak jaso zituzten. Komunitatearen kapitalen mapa marrazteko tailerra egin zuten. Mapa horretan sakontzeko *Delphi* izeneko metodoa baliatu zuten. Gizarte zientzietan erabiltzen den tresna honek aurreikuspenak lortzeko balio dezake. Aditu talde batek galdetegi bat betetzen du, eta, bigarren fase batean, beste adituen ekarpenak ezagututa betetzen da berriro galdetegia. Modu horretan, txandaz txanda, adostasun batera iristen da.

Otsailean egin zuten bigarren mintegia, eta, bertan, euskaraz garatu nahi duen komunitatearen egungo aktiboen maparen emaitzak ezagutu eta "etorkizun-

neko eszenarioen konstelazioa" lantzen hasi ziren. Hirugarren mintegia joan den ekainean egin zuten.

Orain arte egindako bidea "luzea baina atsegina" izan dela dio Martinez de Lunak. "Bai arduran ibili garen taldekideen artean zein hiru mintegietan bildu diren beste pertsona batzuk ere oso jarrera lagungarriarekin eta ilusioarekin bildu garelako. Ez da erraza izan, teknikoki konplikatu eta korapilatsua izan da, baina mamitsua eta sakona ere bai".

Komplexutasun hori erabilitako teknikei zor zaie. Bai planteamenduan zein erabilitako terminologian orain arte egin diren eskemetatik alde egin dute, eta "eskema berritzaileetara" jo dute. Halako prozedurak nazioartean hainbat hausnarketa taldetan erabiltzen direla azaldu du Martinez de Lunak. Funtsean, "dauen baliabideak aztertu eta horiek nola antolatu eta optimizatu" izan da prozesuan parte hartu dutenen helburua. "Azken finean, eta egin daiteken ahaleginarekin, ahalik eta etekinik handiena ateratzea da asmoa".

EUSKARAREN ALDEKO KOMUNITATEAK DITUEN KAPITALAK ETA HORIEN AKTIBO ZEHATZAK IDENTIFIKATU DITUZTE

{ FUSION ARTE }

 <p>TIKI KILIKI</p>	<p>- SURF-ROCK KONTZERTUA - GRAFIC RECORDING-A</p> <p>"Hau... Surf Musika da" TIKI KILIKIren eskutik Zuzenean marrazturiko musika Urriak 20, larunbata - 19:30</p>	 <p>'DELIKATESSEN' MUSIKALA</p> <p>4 a capella ahots, jai-kabaret batean Urriak 27, larunbata - 19:30</p>
 <p>GUS MARIONETAS: "Inaugurazioa"</p> <p>Heurrentzako btxongilo-ikuskitza, musika protagonista duena. Urriak 21, igandea - 18:00</p>	 <p>"LA FURIA" KONTZERTUAN</p> <p>Rap Feminista + DJ + Dantzariak Urriak 28, igandea - 19:30</p>	

LAGUNTZAILEA:
Kultura Saila - Arabako Foru Aldundia




Sarreraren salmenta Kultur Etxean

ESANAK



YOLANDA MOSQUERA
ILUSTRAZIO ONENAREN SARIDUNA

"Lan bakoitzarekin mendia igotzen hasten naiz, behetik hasi behar naiz"



ROSABEL ARGOTE
BIZILAGUNAK EGITASMOKO KIDEA

"Askotan bizilagunak ezagutu nahi ditugu, baina ez dugu elkartzeko topagunerik"



LAURA PEREZ
BASTIDAKO ALKATEA

"200.000 euroko aurrekontua dugu Bastidako herrigunea eta A-124 lotzeko"

ZENBAKITAN

Korrikalariak

1.711

Hiru Haundiak lasterketaren erronkari 1.711 korrikalarik egingo diote aurre. Ultrairaupeneko mendi-lasterketaren XXI. ekitaldia urriaren 20an jokatuko dute 101,6 kilometroko ibilbidean zehar, eta Ondategitik aterako da. Parte-hartzaileek euskal mendi

esanguratsuenetako hiru (Gorbeia, Anboto eta Aizkorri) igo beharko dituzte, 5.126 metroko desnibel positiboa duen ibilbidean. Aurten hazi egin da emakumezkoen izen-ematea, eta 171 izango dira proban korrituko duten emakumeak, aurreko ekitaldian baino %10 gehiago. Manuel Iradier mendizale elkarteak antolatzen du proba.

33

Lanpostuak

Laudioko, Amurrioko, Aguraingo, Oiongo, Bastidako, Kanpezuko, Lapuebla de Labarcako eta Moredako 33 pertsonari prestakuntza eta lana emateko balio izango du Arabako Aldundiak onartu berri duen enplegu planak; gizarte eta ingurumen lanak egiteko kontratuak egingo zaizkie udalerrri horietako langabeei. Langabezia gehien duen Arabako udalerriei begirako programa da onartutakoa, eta Lanbidek finantzatuko du.

13

Milioiak

Bildutako diru kopuruak gora egin du azken bederatzi hilabeteetan, aurreko urtearekin alderatuta. Horregatik, Arabako Aldunditik herrietara zuzentzen den diru partida 13 milioi handituko da 2019an. Hau horrela izatea ahalbidetu du Finantzen Euskal Kontseiluak egindako prebisioak, hain zuzen foru aldundien diru-bilketa kontsolidatuak 2,2 puntutan gaitutuko duela 2018ko ekitaldirako onartutako aurrekontu-aurreikuspena.

Armentia ikastolak antolatuko du 2019ko Araba Euskaraz

Martxan da Araba Euskaraz 2019. Armentia ikastolak antolatuko du aurten, eta Liher Larrea ikastolako lehendakariak azaldu bezala helburua "gertu egotea" izango da. Hori izango da, hain zuzen ere, jaiaren leloa. Ekainaren 16an ospatuko da ikastolen aldeko jai nagusia, baina kultur egitasmoa urte osora zabaltzeko apustua egingen ari direla iragarri dute.



'Gertu' izango da jaiaren lema. A. EUSKARAZ

Frankistek fusilatutako lagunak oroituiko ditu Langraiz Okako Udalak

Langraiz Okako Udalak oroime-nezko monumentu bat eraikiko du 1936an frankistek hildako lagunak gogoratzeko. Hipolito Ajamil Saenz, Deogracias Franco, Francisco Lopez Murga, Aurelio Rodriguez Gonzalez, Bonifacio Somaloma Robador, Claudio Ruiz de Austri Pinedo eta Domingo Ruiz de Austri Ruiz de Austriren senitartekoek egin zuten eskaera.

'Mugiment' osasun-egitasmoa batu da Legutioko Udala

"Udalerrri aktiboa eta osasuntsua lortzeko" *Mugiment* izeneko proiektura batu da Legutioko Udala, osasun zentroarekin eta oinarritzko gizarte zerbitzuekin batera. Lehen ekintza, jarduera fisikoaren orientazio zerbitzua ezartzea da, hilabete honetan; orientatzaileak aholku osasuntsuak ezartzen lagunduko die zerbitzura hurbiltzen diren herritar guztiei.

Igandean ospatuko dute Bovedan XXVII. Patata Azoka

Gaubeako Patata Azoka tradizionalaren hogeita zazpigarren edizioa ospatuko dute igandean, urriaren 21ean, Bovedan. Arabako patatak salduko dituzte Gaubeako nekazariak, *kennebec*, *agria* eta *spunta* motakoak; 25 kiloko zakuetan 15 euroan. Artzai-txakur erakusketa ere izango da, besteak beste, umeentzako jolas eta pilo-partidekin batera.



ATE IREKIAK UNIBERTSITATE GRADUAK
2018/19

Nire etorkizun profesionala gizartearentzat onuragarriak diren berrikuntzak sortzen irudikatzen dut.

Ainhoa Osa Arocena
Bergara. Mekanikako Ingeniaritza. 4. maila.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE AZAROAK 24
LARUNBATA 10:30

GOIERRI AZAROAK 29
OSTEGUNA 17:30

ORONA IDEO ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

ATE IREKIAK HIRIETAN:
BILBAO AZAROAK 8 18:00
Bilbao Berrikuntza Faktoria
DONOSTIA ABENDUAK 18 18:00
Kursaal Jauregia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
— Basque Culinary Center

DONOSTIA ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORRIATZA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ARETXABALETIA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ATE IREKIAK HIRIETAN:
BILBAO AZAROAK 8 18:00
Bilbao Berrikuntza Faktoria

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI URRIAK 25
OSTEGUNA 18:00

BIDASOA URRIAK 27
LARUNBATA 11:00

BILBAO URRIAK 27
LARUNBATA 11:00



Etorriko zarela jakinarazi!
902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

Haitzetatik jasotako koloreak

Jon Cazenave argazkilariaren 'Ur Aitz' erakusketa aurkeztu du Gasteizko Amerika aretoak; formatu desberdinetako argazkiek osatzen dute natura eta paisaiatz gogoeta egin nahi duen bildumak.

ANAKOZ AMENABAR GASTEIZ

Oraina eta iraganaren bilaketa sinbolikoa eginez, argazkilaritza eta marrazketa piktorikoa uztartzen dituen proiektuan barneratu da Jon Cazenave (Donostia, 1978) argazkilaria. Azken urteetan garatutako *Galerna* izeneko proiektu zabalago baten barruan, *Ur Aitz* erakusketa prestatu du, eta hori da urtarrilaren 20ra arte Gasteizko Amerika aretoan ikusi ahal izango dena.

Euskaltasuna aztergai izan zuen *Galerna* lanean hamar urtez murgilduta egon eta gero, paleolitikoa aztertzen amaitu zuen. "Haitzuloetako margoak

aztertzen deskubritu nuen espiritualitate konplexu baten sorkuntza, eta horren inguruan hasi nintzen lanean pigmentoekin", azaldu du Cazenavek ALEA FM saioan egindako elkarrizketan. Azken hamar urteetan ateratako argazkiak berrinterpretatzen ditu orain erakusketa honetan, eta metodo berezia erabili du horretarako; pigmentu mineralen bitartez egindako zuzeneko esku-hartzeekin kapa berri bat eman die lanei.

Azkenaldian natura eta paisaiaren arteko aldea izan ditu hausnarketagai. Natura basatia da, eta paisaia gizakiak sortutako kontzeptua,

nabarmendu duenez, errepresentazio bat: "Eta paisaiak gizakia sortzen baldin badu, horrek ematen dit niri aukera paisaia hori modifikatzeko kolorearen bidez edo orekatzeko beste zenbaitetan".

Mosaiko erraldoia

Kantauri itsasoko olatuen ehunka argazki elkarren ondoan osatutako mosaikoa da nagusi erakusketan, aretoan deigarri. Donostiako Paseo Berrian ateratako 210 piezaz osatutako lana da, "itsasoaren enbata irudikatzen". "Ateratako argazkiak elkarrekin eritimo magiko bat osatzen zutela iruditu zitzaidan, olatuen eritimoa, eta niretzako itsasoaren arnasa bilakatu zen".

Haitzuloaren iluntasuneko beltza, lurraren gorria eta ozeanoaren urdinak bat egiten dute, beste alde batetik, zianotopia argazki sortan. "XIX. mendeko argazkilaritza teknika bat da zianotopia, eta kuriozoso da prozesu horrekin argazkiak urdinak ateratzen direla, eta talka kromatikoa sortzen dela".

Erakusketa urtarrilaren 20ra arte izango da, baina horren aurretik, abenduan, artista bera erakusketaren inguruan prestatutako hainbat saiotan izango da. "Erakusketa bat ez da amaitzen aurkeztutakoan; hainbat jardura izango dira eta han izango naiz *Ur Aitz* konpainia egiten". ■



Urtarrilaren 20ra arte izango da erakusketa, Amerika aretoan. J. CAZENAVE



Aitzkomendiko inguru berria

Egilazko Aitzkomendi trikuharriaren inguruak txukundu dituzte dagoeneko. Zaharkitutako egiturak kendu dituzte, tartean monumentua inguratzen zuen burdinazko baranda bat eta hormigoizko harresiak. Inguruan bertoko landare espezieak jarri dituzte, eta bidegorri bat egingo dutela iragarri du Diputazioak. ■■■

<p>2018-2019 IKASTURTEKO EGITARAU</p> <p>Urriak 24 - 19:00</p> <p>MAPUZUGUN Wallmapu Euskal Herria Elkarte</p>	<p>Azaroak 14 - 19:00</p> <p>MAORIERA Imanol Miner, Normalizazio teknikaria</p>
<p>Urtarrilak 16 - 19:00</p> <p>BRETOIERA Metig Jakez-Vargas, Kazetaria</p>	<p>Otsailak 20 - 19:00</p> <p>HASSANIERA Elyem Chej, Gizarte Hirigintza teknikaria</p>
<p>Martxoak 20 - 19:00</p> <p>PARMERA Sara Agnetti, Fisioterapeuta</p> <p>► Izena emateko: ueu.eus ► Prezioa: Ikastaro osoa: 75 € - Saioka: 5 € (bakoitzak)</p>	<p>Apirilak 10 - 19:00</p> <p>LEMKERA Jon Mikel Intsausti, Informatikaria</p> <p>► Homologazioak - EAEko Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat - UPV/EHUko ikasleentzat</p>

OIHANEDER.EUS
TSAP ADARAS MARTINEZ, ZAHARRA OASIS

AKTIBOAK

ERAKUTZILEAK

IRAKASLEAK

'Black is Beltza'

ZINEMA



ZIGOR ETXEBESTE

ZINEMAZALEA

Fermin Muguruza Kortatu izan zen, erradikalki euskalduna. Baina jada ez da Kortatu. Fermin Muguruza Negu Gorriak izan zen, ozenki esanda. Baina jada ez da Negu Gorriak. Fermin Muguruza Brigadisten soinu sistematik abiatu zen, gero Dub manifestutik Bristolera inkomunikatzeko, baina hori ere errepidean geratu da. Azken urteotan Muguruzaren paseko lekuak Jamaika, Palestina, New Orleans edo Sant Andreu izan dira. Musika ibiltariak burutu al du bidaia? Ez, noski. Fermin Muguruzaren lorratzak hedatzen dabilta oraindik.

Soinu-bilatzaile amorratuak irudien laguntza ere alboan izan du azkenaldian eta zineak irundarraren sorkuntza suspertu du, bigarren gaztaro bati ateak zabalduz. *Checkpoint Rock. Canciones desde Palestina* (2009, Javier Corcuerearekin egina), *Zuloak* (2012) edo *Nola?* (2015) bilaketa honen adibide dira. Euskarria beti musika da, arnas egiteko behar duen osagaia. Estreinatutako berri duen *Black Is Beltza* filmak musikaren taupada du bere baitan, hasieratik bukaerara arte Manex Unanue protagonistaren bidaiek munduko doinu eta estilo desberdinak entzuteko parada ematen baitigute.

1965 urtean New Yorken hasten da kontakizuna, bertan San Ferminetako nafar



'BLACK IS BELTZA'

erraldoiek Bosgarren Etorbidetik desfilatzeko gonbita jasotzerakoan. Ohiko dantzan ari direnean, gazte batek oihukatzen du: "Denok ala inor ez!". Dirudienez, garaiko arraza bereizkeriak bultzatuta, desfilean erraldoi beltza ateratzea debekatu zuten. Horra arte, egia. Manex gaztearen haserrea eta oihua, ostera, asmatuak.

Bere ibilbidea etorbide horretan hasi eta abenturazale klasiko baten antzera, mundu

**LORTUTAKO EMAITZA
EUSKAL ANIMAZIOZKO
ZINEAN MUGARRI BAT
BIHURTU DAITEKEELA
USTE DUT**

osotik eramango gaitu 60ko hamarkada iskanbilatsuan: Malcolm Xen hilketaren osteko Harlem, Warholen The Factory, Kuba iraultzailea, Mexiko, Tijuana edo frankismopeko Espainia. Manexek eskutik eramango gaitu garaiko beste pertsonai askorekin gurutzatuz, Pantera Beltzak, Che Guevara, Juan Rulfo, Tin Tan, Angela Davis edo Otis Redding, besteen artean.

Manexek bizi dituen gorabehera harrigarriak (batzutan ia sinestezinak) dira Fermin Muguruzak, Harkaitz Canok eta Eduard Solak idatzi duten gidioaren erdigune, gutzia musikaz blai. Hori bai, musika bikaina, eta oso eklektikoa, soul, rock, pop, reggae, musika arabiarra edo musika elektronikoa nahastuz. Raúl Refreek eta Muguruzak berak Sant Andreuko Sormen Fabrikan sortutako musika erabat gozagarria da, eta gainera, filmaren irudiak ezinhobe koloreztatzen ditu. Soinu banda filmaren beste oparietako bat da.

Euskal animaziozko zinean mugarri bat bihurtu daitekeela uste dut. Baina hori baino askoz gehiago da. Beltzak ortzadar koloretsua du atzean. —

zinea

Txapelketa atarikoak

BERTSOLARITZA



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

2019an Arabako Bertsolari Txapelketaren edizio berri bat izango dugu, Kuadrillartekoarekin tartekatuta bi urtean behingo zikloarekin jarraituz. 18 bertsolarik hartuko dute parte. Horretarako, aurre-lanak egin behar dira, ordea, 27 lagunek eman baitute izena txapelketan.

Txapelketaren atariko indartsua da, beraz. Bost saiotan, 13 bertsolari sailkatuko dira datorren urteko txapelketara; horiekin batera, 2017ko finalean kantatu zuten Oihane Perekak, Manex Agirrek, Xabi Igoak, Iñaki Viñasprek eta Serapio Lopezek poltsikoan dute jada txapelketan parte hartzeko txartela.

Bost kanporaketa, gure lurraldean zehar banatutako bost lekutan: Maeztun, Izorian, Bastidan, Agurainen eta Murgian. Saio bakoitzean nork kantatuko duen erabakitzeko, 2017ko txapelketan lortu zuten postua hartu da kontuan. Hala ere, badira iazko edizioan parte hartu ez zuten bertsolariak, eta horiekin osatu dira kanporaketak. Belaunaldi berriak badatoz, plaza-gosez, eta txapelketa izan daiteke pauso bat aurrera emateko aukerarik egokienetako bat.

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da, eta puntuaziorik onena jasozten duten gainerako bertsolariek osatuko dute hamahiruko taldea. Ariketei dagokienez,



ABE

txapelketaren aurre-lanak izateak ez du esan nahi eskakizun-maila suabeagoa izango denik. Bertso puntuagarrien kasuan, txapelketetan ohikoak izaten diren ariketak egin beharko dituzte parte-hartzaileek: binaka, gaia emanda, hiruna

BELAUNALDI BERRIAK DATOZ, PLAZA-GOSEZ, ETA TXAPELKETA IZAN DAITEKE PAUSO BAT EMATEKO AUKERA

bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian, bakarka, hasierako puntua emanda, bertso bina zortziko txikian, eta bakarka, gaia emanda, bertso bina neurri librean.

Elkarrekin egoteko, girotzeko, eta elkarren indarrak neurtzeko aprobetxatuko dute bertsolariek. Belaunaldi ezberdinen arteko nahasketak ohikoak dira txapelketetan, eta urriko bost saioetan ere biziko dugu hori, seguru. Animatu, atera agendak, eta apuntatu saioen datak: www.bertsozale.eus/araba. ■■■

Ganboako bikarriotzan

GURE BAZTERRAK



Mendibil

Kuadrilla: Gorbeialdea.

Udalerrria: Arratzua-Ubarrundia.

Biztanleak: 45 (2017ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Gasteizko Eskoriatza Eskibelen kokatu zen seminarioaren fundatzailea Mendibilgo Domingo Ambrosio de Agirre apaiza izan zen.

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Zadorraren ertzean dago Mendibil, eta urtegiaren inguruan oinez edo bizikletaz ibiltzeko aukera ugari dago. Halaber, Ardoa eta Arrainaren GR-38aren 4. etaparen ibilbideak Amarita herriarekin lotzen du, eta 6. etapa Arbulurekin.

Aspalditik da Arratzuako Ermandadearen partaide, eta 1025eko agiri batean, Donemiliagako kodizean, *Mendivil* izenaz agertzen da. Dokumentazio horretan bi hустutako herri azaltzen dira Mendibilgo lur-eremuan: Sansoeta eta Iturragain; Mendibiletik ekialderantz bi kilometrotara zegoen Sansoeta. Donemiliagako dokumentuan aipatzen da monasterioari zerga ordaintzen ziola. Egun, Mendibileko elizan dago ikusgai bertako eliza zaharreko bataiarria, Done Ezteberi eskainia. Sansoetako herrixka eta tenplua ustezko arkeologia

eremua bezala izendatuta dau-
de, eta babestuta.

Iturrain, berriz, 1257. urtean jadanik aipatzen dute, *Ytuýraran* grafiaz idatzita, Jeronimo Aznaren Kalagurriko zerrendan. Halaber, 1844. urtean, Madozek *Diccionario geográfico*an, Mendibil, Arzubiaga eta Dura artean herri baten aztarnak zeudela jaso

zuen, eta garai horretan oraindik Iturrain izena zuela eremuak. Basilika baten aurriak zeudela ere esaten du, eta bertan meza ospatzen zela 40 bat urte lehenagora arte, eta komunitateko hiru herriek bertan egiten zituztela batzarrak.

Jatorri euskalduna du Mendibilek, Ganboako bikarriotzako herri guztiek bezala. Izan ere, XVIII. mendeko agiri batean jasotzen da bikarriotzako herri guztietan, tartean Mendibilen, euskaraz hitz egiten zutela. Dena den, L. L. Bonapartek 1863. urtean osatu zuen mapa linguistikoan jada euskararen menpeko lurraldeetatik kanpo kokatzen du.

Hurtado Mendozatzen dorrea da herriko ondareetako bat; XIII. mendearan hasierakoa dela uste da; hormak eta estalitako gezi-leihoren bat geratu dira bakarrik, egun guztiz desitxuratua baitago eraikina. Halaber, Done Jakue apostoluaren parrokielizak XVIII. mendeko erretaula du, eraberritua.



Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

Irabazleak:

Gorbeia zinemarako 3 sarrera bikoitz: Joseba Imanol Kortazar, Maite Barrio, Ekhiñe Landaluze.




Zinemarako 2 sarrera bikoitz
Flordan, edozein pelikula ikusteko.
Eman izena urriaren 23a baino lehen.

PARTE HARTU: www.alea.eus/zozketak



Antzerkirako sarrera bikoitza
Principalen, 'Moby Dick' ikusteko.
Eman izena urriaren 23a baino lehen.



Zozketa berezia

5 ALEA harpidetza

Oraindik ez zara ALEAkidea, edota zure inguruko norbaiti ALEAren harpidetza eskuratzeko aukera eman nahi al diozu? Laboral Kutxaren babesari esker, ALEAren harpidetza doan lortu dezakezu. **Eman izena urriaren 30a baino lehen:**

www.alea.eus/zozketak



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Urriaren 19tik 25era

Euskararen agenda

MUSIKA

LUIAONDO Diskojaia

Mikel Egiluzekin. Euskararen Asteburuaren barruan.
Ostirala 19, 19:30etan, pilotalekuan.

AMURRIO Zitxada eta Erlantz

Ostirala 19, 21:00etan, gaztetxean.

AMURRIO Etxe

Lenao eta Pachuco Nicerekin batera.
Larunbata 20, 22:00etan, Burubio aretoan.

OKONDO Arabako Trikitixa Txapelketa

Topaketa eta txapelketa.
Igandea 21, 10:00etatik aurrera.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO Bertso bazkaria

Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua.
Larunbata 20, 15:00etan, Kasatxon.

ANTZERKIA

LUIAONDO 'Bakean dagoena bakean utzi'

Umore ikuskizuna, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairekin.
Ostirala 19, 19:00etan, Otuelta gizarte etxean.

HITZALDIA

GASTEIZ Hitz Adina Mintzo

Hizkuntza gutxiutuak ezagutzeko zikloak mapuzugun-a ekarriko du,



EITB

GASTEIZ Mainer Zabalegi

Eskilarapeko Soinuak formatu txikiko kontzertu zikloaren barruan.
Osteguna 25, 19:30etan, Falerina tabernan.

Wallmapu-Euskal Herria elkartearen eskutik.
Asteazkena 24, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

HAURRAK

DULANTZI Txotxongiloak

Ikuskizuna, Gus taldearen eskutik. 3 urtetik aurrera.
Igandea 21, 18:00etan, auditorioan.

GASTEIZ 'Oso printzesa iletsua'

T-Diferenciaren eskutik. 4-10 urte bitartean.
Astelehena 22, 18:00etan, Hegoalde gizarte etxean.

GASTEIZ 'Bihotz bihotzez liburu bat'

Pailazo baten istorioa. Teatro Paraisoren eskutik. 3-6 urte.
Astelehena 22, 18:00etan, Arana gizarte etxean.

GASTEIZ 'Tximeletrak'

Xabier Olaso kontalariaren eskutik. 5-10 urte bitartean.
Astearte 23, 18:00etan, Ariznabarra gizarte etxean.

IKUS-ENTZUN

GASTEIZ 'Mendi-joen balada' ikuskizuna

Aingeru Epaltza idazleak prestatutako literatur ikuskizuna. *Mendi-joak* idazlearen azken liburua oinarri.
Igandea 21, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Jardunaldi feministak

Mahai-inguruak, hitzaldiak, erakusketa eta etzabaida.
Ostiraletik igandera arte izango dira, Errekaleorren.



EDUARDO ALSASUA

GASTEIZ 'Un paseo por mi barrio'

Eduardo Alsasuaren pintura erakusketa.
Azaroaren 3ra arte, Artgia gunean.

LAUDIO Sagar Eguna

Felix Mugurtza historialariak gidatutako ibilaldi didaktikoa izango da ekitaldien artean.
Larunbata 20, 10:30ean, Aldai plazan.

LAUDIO Irakurle Kluba

Txani Rodriguez idazlearen eskutik.
Astelehena 22, 19:30ean, udal liburutegian.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ SFDK

Ostirala 19, 21:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

GASTEIZ The Bellrays

Nevadah taldearekin batera.
Larunbata 20, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Esto no es La casa de Bernarda Alba'

Eusebio Poncela aktorearekin.
Ostirala 19, 20:30ean, Principal antzokian.

AMURRIO 'El cuadro'

Verdeancho taldearen eskutik.
Larunbata 20, 20:00etan, Amurrio antzokian.

GASTEIZ 'La conquista de lo inútil'

Txubio Fernandez de Jauregi, Javi Barandiaran eta Esperaza Lopez aktoreekin. L'Alakran taldearen eskutik.
Larunbata 20, 20:30ean, Felix Petite antzokian.

BESTELAKOAK

LEGUTIO Ardo dastatzea

Urria Kulturala ekimenen barruan.
Larunbata 20, 19:30ean, herriko plazan.

GASTEIZ Errota Anitza herri lasterketa

Errota auzoan elkarbizitza sustatzeko asmoa antolatutako herri lasterketa.
Igandea 21, 11:00etan, Santo Domingo plazatik abiatuta.

ERROTA ANITZA

Herri Lasterketa

Carrera popular Kids Run **ةعتم ىدملا**

URRIAK 21 IGANDEA
DOMINGO DE OCTUBRE

Santo Domingo Plazan

11:00etatik aurrera

...eta gainera:

Musika, Jolasak, Hamaiketakoa

BABES DITZAGUN SALTOKI TXIKIAK • APOYEMOS EL PEQUEÑO COMERCIO • Laguntzaileak:

Bazar y frutería XU (Simon de Anda) • Carnicería halal ASSALAM (Eulogio Serdan) • Comercial LANBER GASTEIZ (Ollamendi)

Bar TUCKY (Santo Domingo plaza) • DARDARA kluba (Julian Apraiz) • Bodega SAN VICENTE (Simon de Anda)

Harcutería y carnicería ELVIRA (Eulogio Serdan) • Bodega ANDAGOYA (Eulogio Serdan) • Panadería MI TAHONA (Larrugile)

Autoservicio y restaurante BELMECHER (Julian Apraiz) • Cafés LA BRASILEÑA (Koroatzea)

Pescados PURI VARA (Domingo Beltran kalea) • Pescados y mariscos MAIKA (Arriagako atea)

Bar MI TABERNA (Larrugile) • TXALUPA taberna (Larrugile) • Frutería DELIKA (Koroatzea)

IBN BATTUTA kultur elkarte (Julian Apraiz)



**ERROTA
ANITZA**

Babesleak:



Izena eman: www.errota.org/anitza/